



MUSIKA

# Brahms Fest Euskal Herrian

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**D**enboraldi honetako Euskadiko Orkestraren abonua kontzertuen lehen zikloa Brahms-i eskaintzea oso egokia izan da. Klasizismoaren eta erromantizismoaren arteko konpositore honek egitura sendoak eta lurrin dekadentea ditu, eta horixe behar dugu udazken musikal honi ekiteko.

Gure hiriburuetakoko hamar kontzertutan, orkestrak konpositorearen lau sinfoniak interpretatuko ditu, baita piano eta orkestrarako bi kontzertuak eta biolin eta biolontxelorako kontzertu bikaina ere.

Komentatzen dudana kontzertuan, bigarren sinfonia eta biolin eta txeloarentzako aipatutako kontzertua interpretatu ziren.

Behin baino gehiagotan aipatu dudan bezala, Gasteizko Principal antzokiaren akustika lehorra eta esker txarrekoa ez da interpretazio finaz gozatzeko giro egokia, baina, egia esan, zailtasun horiekin guztiekin, Euskadiko Orkestraren soinua, oro har, interesgarria, dotorea eta iradokitzailea izan zen.

Biolin eta txeloarentzako kontzertuari dagokionez, emaitza bikaina izan zen, batez ere eszenatoki gainean bi bakarlari bikain izan genituelako. Dmitri Makhtin biolinean eta Alexey Stadler txeloan, biak errusiarrak, biak San Petersburgokoak. Musikaltasun eta soinua biribil eta inguratzailearen lezioa eman zuten. Bereziki adierazkorrak izan zen Stadler-en interpretazioa, Makhtin hieratikoa eta mekanikoa



PATXI CASCANTE / EUSKADIKO ORKESTRA

Euskadiko Orkestra. 2021-2022 denboraldia. Zuzendaria: Robert Treviño. Bakarlariak: Dmitri Makhtin (biolina), eta Alexey Stadler (biolontxelo). Egitaraua: Brahms-en obrak. Gasteizko Principal Antzokian, irailaren 30ean. Argazkia Iruñeko Baluarten eskainitako kontzertukoak da, irailaren 27koa.

baten aurrean, nahiz eta erakargarria izan azken hori ere. Orkestraren buru Robert Treviñok elementu guztien amalgama ona egiten jakin zuen, baita musika enpate bikain, ongi ehundua eta orekatua eskaintzen ere.

Brahmsen 2. Sinfonia handiak irakurketa egokia izan zuen, ez zen aurreko kontzertua bezain distiratsua izan, baina inspirazio bera izan zuen. Sin-

fonia hori, ziurrenik publikoak gehien ezagutzen duenetako bat, malenkonia lasaiez betetako lana da, ezkortasun uneak dituen, Brahmsen musikan hain bereizgarriak direnak. *Décalage* batzuk egon ziren, taldearen koordinazio faltaren bat, batez ere lehenengo mugimenduan, baina halere, ez zuen eragotzi interpretazioa, oro har, ederra, orekatua eta matizatua izatea. ●